BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

2318

EBAZPENA, 2024ko maiatzaren 2koa, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearena, Hezkuntzako sailburuaren 2023ko irailaren 19ko Aginduaren bidez iragarritako dirulaguntzen erakunde onuradunen zerrenda argitaratzeko dena. Agindu horren bidez dirulaguntzen deialdia egin zen 2024ko ekitaldian ekipamendu zientifikoa eskuratzeko (2023ko irailaren 29ko EHAA, 187. zk.).

Deialdi-aginduaren 14. artikuluaren arabera, Hautaketa Batzordeak Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeari aurkeztuko dio ebazpen-proposamena, eta hark esleipenak egingo ditu ebazpen baten bidez; ebazpen hori Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratuko da, hargatik eragotzi gabe gerora EHAAn laguntzen erakunde onuradunak eta eman zaizkien diru kopuruak zein izan diren argitara ematea, publizitate-ondorioetarako.

2024ko apirilaren 15ean ebatzi zen deialdia, eta hurrengo egunean Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu zen ebazpena; beraz, argitara eman behar da zein izan diren laguntzen erakunde onuradunak eta zein emandako diru kopuruak, publizitate-ondorioetarako. Horregatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Hezkuntzako sailburuaren 2023ko irailaren 19ko Aginduaren babesean, ekipamendu zientifikoa eskuratzeko emandako dirulaguntzen erakunde onuradunen zerrenda eta diru kopuruak argitaratzea (agindu horren bidez, 2024ko ekitaldian ekipamendu zientifikoa eskuratzeko laguntzen deialdia egin zen; 2023ko irailaren 29ko EHAA, 187. zk.). Ebazpen honen eranskinean ageri dira erakunde onuradunen zerrenda eta emandako diru kopuruak.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko maiatzaren 2a.

Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordea,
ADOLFO MORAIS EZQUERRO.

ERANSKINA

ERAKUNDE ONURADUNAK

1. MODALITATEA

Espediente zk.	Hurrenk.	Ekipamendua	Ikertzaile nagusia	Erakundea	Laguntza-erakundea	Emandako zenbatekoa
EC_2024_1_0008	1	Magcompass; Measurement and analysis of magnetic components by advanced system / Medida y análisis de componentes magnéticos mediante sistema avanzado	Poza Lobo, Francisco Javier	Goi Eskola Politeknikoa, S. Coop.	Ikerlan, S. Coop. Ltda.	66.872,00
EC_2024_1_0009	2	Equipamiento de fenotipado de ritmos circadianos en roedores	Astiz Cadenas, Mariana	Achucarro Basque Center for Neuroscience Fundazioa	-	27.448,00

2. MODALITATEA

Espediente zk.	Hurrenk.	Ekipamendua	Ikertzaile nagusia	Erakundea	Laguntza-erakundea	Emandako zenbatekoa
EC_2024_1_0010	1	Low temperature sub-nanometer-resolved photon microscope	Ilin Listikov, Maxim	Asociacion de Investigacion MPC-Materials Physics Center	Fundación Donostia International Physics Center (DIPC)	364.833,00